



# NORK IZAN NAHI DU ARRANTZALE?

KOFRADIA  
~ Itsas Etxea



cristinaenea  
FUNDAZIOA





# ERRESERBA

Nola egin?



## Aukeraketa

Aukeratu zure taldearentzat jarduerarik egokiena.



## Datuak

Izan eskura ikastetxeari buruzko datuak, erreserbatzeko behar izango dituzu eta.



## Erreserba

Jarri harremanetan Cristina Enea Fundazioko hezkuntza sailarekin, erreserba egiteko.  
Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara.  
943 48 35 00 (luz. 9719)  
[cristinaaeneabisitak@donostia.eus](mailto:cristinaaeneabisitak@donostia.eus)



## Posta

Bisitaldia egin baino astebete lehenago, posta elektroniko bat bidaliko dizugu, hitzartutako bisita gogoratzeko.



### HELBURUAK

- Baxurako arrantza zer den eta gure gizarteari oro har ekartzen dizkion onurak ezagutzea.
- Donostiako kaiko garai bateko itsas-bizitzaren berri izatea.
- Naturaren eta izaki bizidunen gaineko jakinmina eta errespetua sustatzea.
- Pertsonen natura zaintzeko duten arduraz jabetzea eta jarrera kritikoa izatea ingurunean egiten diren jardueretik.

### EDUKIAK

- Kainabera bidezko arrantza eta honekin lotutako oinarrizko tresnak.
- Kantauriko baxura arrantzaleen lana.
- Arrain espezie esanguratsuenak, bere arrantza garaiak eta gutxieneko neurriak, itsas ekosistemen iraunkortasunerako.

### LABURPENA

Donostiako arrantzale familia bateko azken belaunaldia diren Joaquín Vaqueriza eta Dolores Urtizberea-ren bilobak izango ditugu kaiko bisita honetan bidelagun. Beraien eskutik ezagutuko ditugu arrantzaleen bizimodua eta Donostiako kaiko bitxikeria batzuk. Arrantzale bihurtuko gara kainabera bidezko arrantza probatuz. Nork izan nahi du arrantzale?

90'





## BAXURAKO MARINELA IZAN!

# 6 - 8 URTE

### HELBURUAK

- Donostiako kaiko garai bateko itsas-bizitzaren berri izatea.
- Baxurako arrantza zer den eta arrantzaleen lana eta bizimoduaren lehen bizipenak edukitzea.
- Espezieen iraunkortasunerako oinarriez jabetzea eta honek ingurumenerako daukan garrantzia.

### EDUKIAK

- Kainabera bidezko arrantza.
- Donostiako kaian jardunean dirauen baxurako arrantza-ontzi bati bisita.
- Itsasotziaren parteak eta marinelaren funtzioak.
- Inguraketa arrantza teknika.
- Donostiako kaia tik bisita teatralizatua.

### LABURPENA

**a**

Isturiz I, baxurako arrantza-ontzia bisitatuko dugu eta bertan nola lan egiten duten esperimentatuko dugu. Barkuen ezaugarri eta funtzionamendua ere ikasiko ditugu.


**b**

Arrantza Tailerrean Baxurako arrain mota batzuk, zein sasoietan arrantzatzen diren eta zein teknika bidez ikasiko dugu. Gainera arrantzale bihurtuko gara, arrantza benetako kainaberekin egiten.

120'

Ea etorkizuneko arrantzalerik dagoen gure artean!





## HELBURUAK

- Arrantza tradizionalaren ezaugarriak ezagutzea eta jarduera honek gure gizartean, kulturaren eta itsasoaren osasun eta iraunkortasunerako duen onuraz hausnartzea.
- Kainabera bidezko arrantza gertutik ezagutzea eta honekin erlazionatutako oinarritzko tresnak erabiltzea.
- Bertako eta sasoiko hainbat espezie identifikatzea eta hauen arrantzaren inguruko lana gertutik ezagutzea.

## EDUKIAK

- Kainabera bidezko arrantza.
- Donostiako kaian jardunean dirauen baxurako arrantza-ontzi bati bisita.
- Itsasotziaren parteak eta marinelen funtzioak.
- Inguraketa arrantza teknika.

## LABURPENA

**a** Donostiako kaian arrantzan dirauen Isturiz I itsasontzia bisitatuko dugu. Arrantza-ontzi batean tripulazioko kide bakoitzak duen lekua, lana eta ardurak ikasiko ditugu.

**b** Altxorraren bila jolasaren bitartez, Donostiako kaiko historia, hainbat bitxikeria eta inguraketa teknika bidezko arrantzara hurbilduko gara.

**d** Pasaleku berrian kainaberaz arrantza egitea espeziei buruz gehiago ikasteko.



120'



## HELBURUAK


- Baxurako arrantzan hartzen diren espeziak noiz eta zein teknika erabiliz harrapatzen diren.
- Baxurako arrantzaren sektorean belaunaldi-aldaketa sustatzea, gazteei lan-aukera gisa aurkeztuz.
- Arrantza tradizionalari eta itsasbazterreko arrainei balioa ematea sistema jasangarri gisa, beren kontsumoa bultzatzeko.

## EDUKIAK

- Euskal Herriko arrantzaleen lana eta bizimodua.
- Donostiako kaiko historia eta ohiturak.
- Puntu kardinalak, orientazioa, logika eta arrazoiketa lantzeko enigmak.

## LABURPENA

Escape-jolasa da Scape Kaia. Tablet batek gidatuko zaituzte, beharrezko ikus-entzutekoak, kokatzeko mapa eta altxorra aurkitzeko pistak eskainiz. Probak gaindituz, talde lanean, aurrera egingo duzue eta aldi berean gure kostaldeko baxurako arrantza eta itsasoari lotutako hainbat lanbide eta jarduera ezagutuko dituzue. Donostiako kaiko txoko batetik bestera ibili beharko duzue pistak jarraitu eta enigmak argitzeko. Gai izango al zarete altxorra aurkitzeko?



150´





# KOFRADIA-ITSAS ETXeko SUKALDARITZA TAILERRA

6 - 12 URTE

## HELBURUAK

- Baxurako arrainaren kontsumoa sustatzea.
- Baxurako arraina kontsumitzeko modu berriak bultzatzera.
- Baxurako arrainari balioa ematea eta gazteen artean nutrizio-onurak ezagutaraztea.

## EDUKIAK

- Hainbat arrain espezie, haien sasoia eta anatomia.
- Arrainen trazabilitatea "itsasotik mahaira"
- Tokiko produktua kontsumitzearen eta zer jaten dugun jakitearen garrantzia.

## LABURPENA

Tailer honetan gazteek baxurako arrainetan oinarritutako platerak sukaldatzen ikasiko dute. Gainera, gure arrantzaleek harrapatzen dituzten arrain espezieak, hauen denboraldiak, eta mahaian zerbitzatzen den arte jasaten duten prozesua ezagutuko dituzte. Tailer honetan, sormenezko platerak prestatuko dira, parte-hartzaileei erakusteko arraina hainbat modutan kontsumi daitekeela, modu dibertigarri eta osasungarrian. Zer jaten dugun ezagutzearen eta tokiko eta hurbileko produktuak baloratzearen garrantzia azpimarratuko da.

120'





ARRANTZA IKUSTERA GOAZI!

6 - 12 URTE

## HELBURUAK

- Tretzarraren arrantza-artearen transmititzea.
- Denboraldiaren arabera baxurako espezieak ezagutzea.
- Artisau-arrantzaren sektoreari balioa ematea.

## EDUKIAK

- Itsas ingurunearen, ingurunearen eta baxurako espezieen garrantzia.
- Gure arrantzaleek erabiltzen dituzten artisau-arrantzako aparailuak.
- Arrantzaleen bizimoduari buruzko azalpenak eta artisau-arrantzako ontzi bateko elkarbizitza.

## LABURPENA

Aitona Julian IV itsasontzian bidaia egingo dute Donostiako badiatik. Bertan, inguruaz gozatzeaz gain, zuzenean ikusi ahal izango dute baxurako itsasontzi bat arrantzan, tretza-arrantza artisauaren bidez. Gainera, harrapatutako baxurako espezieak bereizten ikasiko dute eta itsasontzi bateko jarduera bertatik bertara bizi ahal izango dute.

- Jarduera elebiduna.
  - 60 ikaslerentzako jarduera.
  - Jardueraren prezioa 300€
- 



943483500 (luz. 9719)



cristinaeneabisitak@donostia.eus



[www.kofradia.eus](http://www.kofradia.eus) / [www.cristinaenea.eus](http://www.cristinaenea.eus)

**KOFRADIA**  
~ Itsas Etxea

